

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Valle del Ebro BHI ikastetxean 30 ikaslek hasi dituzte Ikerketa Batxilergoko ikasketak

*Ikasleek "Ikerketarako sarrera" ikasgaia izango dute eta bigarren mailan ikerketa proiektua aurkeztuko dute*

Astelehena, 2018.eko irailak 10

Valle del Ebro Bigarren Hezkuntzako Institutuko 30 ikaslek Ikerketa Batxilergoko (I+) ikasketak hasi dituzte, lehenengoz. Batxilergoko ohiko lerroetan lantzen diren ikasgaiekin batera "Ikerketarako sarrera" ikasgaia izango dute, hartara ikerketarako ezagutzak eskuratuko dituzte.

Ikasleen artean ikerketetarako bokazioa bultzatzea du helburuetariko bat Ikerketarako batxilergoak (I+).

Modu honetara, batxilergoan ohikoak dituzten ikasgaiekin batera, urteko lehenengo hiruhilekoan, eta eskola orduetatik kanpo, Ikerketarako sarrera ikasgaia izango dute ikasleek. Modu atsegina eta praktikoa batean ikerketarako metodologia ezagutzeko aukera izango dute eta, ondoren, ikerketa proiektua garatzeko aukera izango dute, tutore batek lagundurik; lan hori, gainera, batxilergoko bigarren mailan aurkeztuko dute. Hori garatu ahal izateko, eta ikerketa modu zein azterketetan sakontzeko, klase praktikokoak, laborategian esperimenduak, irteerak nahiz sormen-ekintzak garatuko dituzte.

Praktika horiek egin ahal izateko Valle del Ebro hainbat hitzarmenak sinatu ditu hurrengoekin: Tuterako Udalearekin lotutako elkarteak, Tuterako Osasun Arloa, Reina Sofia Erietxea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, UHUN, Comunidad de Bardenas zein CNTA; elkarlanerako eta ikerketalaran burutzeko hitzarmenak, alegia.

Gaur bertan aurkeztu dituzte ikasketak berri hauek Valle del Ebro BHI ikastetxean egindako ekitaldian. Han izan dira Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Pérez, Valle del Ebro BHIko zuzendari Izaskun Ciriza, Tuterako alkate Eneko Larrarte eta gazte ikerlarien lehiaketako UNEDko zuzendari zientifiko Jesús Jordá. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Francisco Etxeberria ere egotekoa zen, baina azken orduan ezin izan da agertu. Gainera, Carmen Aguirre, María Compés eta Mario Sanz, Valle del Ebro BHIko ikasleek "Enterramientos en decúbito prono de la Iglesia de San Nicolás en Tudela" ikerketa-lana aurkeztu dute.



Roberto Pérez Ikerketa Batxilergoko ikaslegoari zuzendu zaie.

Roberto Perez Elortza Hezkuntzako zuzendari orokorrak, Batxilergoa martxan jartzeko irakasleek eginiko lana eta adierazitako konpromisoa nabarmendu ditu eta gaineratu duenez, “gure parte hartze metodologiak indartzeko helburuarekin zeharo betetzen du Batxilergo honek, baita aniztasunari arreta eta inklusioaren helburuekin ere. Gainera, agerian uzten du ikerketaren jardunak gizarteari itzultzen dizkion onurak”.

Izaskun Ciriza, IES Valle del Ebro ikastetxeko zuzendariak, bestalde, proiektu honi hainbat entitatek emandako babesa azpimarratu du eta familia zein ikasleentzat esker oneko hitzak izan ditu hastear den ikasketetan jarritako konfiantzagatik. Zentzu horretan mintzatu da Eneko Larrarte Tuterako alkatea ere; ikasleei zuzendu zaie “etxeko lan bat ere baduzue: inguratzen zaituen errealitatea hobetzeko ardura ere zuena da”.

### **Metodologia berriak**

I+ Ikerketa Batxilergoaren garapenarekin batera, Tuterako ikastetxe honek metodologia berriak sustatuko ditu. Baita ikasketa prozesu parte-hartzaileak eta proiektuka lan egiteko prozedurak ere. Metodologia hauen bitartez, ikaslea da ikasketaren protagonista. Gazteari proiektu bat izendatuko zaio. Arazo edo egoera bati irtenbidea topatu beharko dio eskura dituen baliabideak erabiliz. Irakasleei modu praktikoa lan egiteko aukera ematen die, sistema esperimentalen bitartez lan didaktikoa jarduera zientifikora eramanez.